

# 2016ko MAIATZAREN 2ko KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA

2016ko maiatzaren 2an, astelehenarekin, arratseko zortzietan, Herriko Etxean, Vincent BRU jaunaren lehendakaritzapean, Herriko kontseilua bildu da.

Hor zirenak : Vincent Bru auzapeza jauna, Bernadette Jougleux anderea, Christian Devèze jauna, Eliane Noblia anderea, Frédéric Bardin jauna, Pascale Lespade anderea, Didier Irastorza jauna, Eliane Aizpuru anderea, Henri Saint Jean jauna, axuantak, Anne-Marie Pontacq anderea, Vincent Goytino jauna, Christiane Hargain-Despéries anderea, Patrice Dor jauna, Yolande Huguenard anderea, Argitxu Hirigoyen anderea, Jean-Noël Magis jauna, Corinne Othatcegy anderea, Peio Etchelecu jauna, Maryannick Hirigoyen anderea, Roger Barbier jauna, Carmen Gonzalez anderea, Pascal Bourguet jauna, Véronique Larronde anderea, Camille Jenvrin jauna, Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea, Pantxo Michelena jauna, herriko kontseilariak.

Ezin etorria : Jean-Jacques Lassus jauna, herriko kontseilaria.

Ahalordea : Jean-Jacques Lassus jaunak Vincent Goytino jaunari.

## **1 – Bilkurako idazkariaren izendapena.**

Argitxu Hirigoyen anderea **aho batez** bilkurako idazkari bezala izendatua da.

## **2 – Aitzineko bilkurako bildumaren onarpena.**

Herriko kontseilariei helarazi zitzaizen martxoaren 21eko bilkuraren bildumari buruzko ohar berezirik ba ote den galdetzen du Auzapez jaunak, eta Herriko kontseiluko kide batzuek aitzinetik aurkeztu proiektuari buruz adierazi oharrak jadanik bilduma horretan gehituak izan zirela zehazten du. Nehork ez duenez ohar berririk gehitzeko, aitzineko bilkurako bilduma aho batez onartua da.

Maité Bidabé andereak Kanboko herriaren eta kanboarren zerbitzuko 41 urte pasa ondoan, aitzineko astean, Bidabé andereak Herriko Etxea emozioz beterik utzi duela oroitarazten dio Auzapez jaunak Herriko kontseiluari. 41 urteetan, 4 auzapezei laguntza eman die, eta Vincent Bru auzapez jaunaren ondoan 21 urte iragan ditu. Eguneroko lanean, garai baten amaiera eta aro berri baten hastapena da. Hala, Maité Bidabé anderea ordezkatzan duen Marie-Pierre Brave anderea atsegin handiz errezibitzen du Herriko Etxeak, eta elkargoaren zerbitzuko urte zenbait egitea desiratzen dio.

## **3 – HELEP berriaren proiektua.**

Auzapez jaunak Herriko kontseiluko kideei prozedura azaltzen zuen oharpen bat jaso zutela oroitarazten die. 2015eko azaroan, lehen bozkatze bat iragan zen, Ipar Euskal Herriko 158 herriko kontseiluetako, sindikatu etako eta herriarteko elkargo etako iritzi bilketa, hain zuzen ere. Herriarteko Lankidetzako Departamendu Batzordea behin baino gehiagotan bildu izan da. Departamenduen ekialdeko, erdialdeko, eta, azkenik, Euskal Herriari dagokion mendebaldeko proiektuak ikertu ditu. 2016ko martxoaren 14an, lurralde eremu honi buruzko iritzia adierazteko jakinarazpen gutuna jaso ondotik, 75 eguneko epea duela jakinarazten dion gutuna igorri zion Prefeta jaunak Auzapez

jaunari. Lehen bozkatzea ez bezala, erabaki-bozka bat zen hau. Hala, erabakia Ipar Euskal Herriko Herriko kontseiluek hartuko dute. Gehiengoa, hau da, biztanleriaren erdia ordezkatzeko duten herrien erdia osatu beharko dute. 2015eko azaroaren 30eko bozkatzearen aitzineko larunbatean, HELEP proiektuari dagokion mintegi bat egon zela oroitarazten du Auzapez jaunak. Beste nehorik hitzik hartu nahi ez badu, bozkatzen hastea proposatzen du.

Barbier jaunak hitza hartzen du : « Hautetsi gisa Ipar Euskal Herriko Herriarteko Lankidetzako Erakunde Publiko bakarraren alde ala kontra adierazteko eskatzen dit Prefeta jaunak, eta, zuetako bakoitzari galde bera egiten dio. Gaurko bozkatzeak gure lurraldearen, enpresen eta herritarren geroan eraginen du.

Nire iritzia, funtsean, euskal erakunde bakar baten alde doa. Alabaina, erabilitako metodoa desegokia iruditzen zait, HELEP batek ekartzen dituen zailtasunei begira bereziki, hala nola gobernantza, fiskalitatea, eskumenen betetzeari dagokionez...

Hala, ukan solasaldietan, Prefeta jaunak « lasaitasuna » adierazi nahi izan du, ondoko hilabeteetan, Frantziako gobernuak egoera argituko lukeen lege bilakaera baten engaiamendua hartuko duela nabarmenduz. Zintzoki, gure boza zeren alde jarri jakiteko, hori jadanik egin izan zedin nahiago izanen nuen.

Badakit, anitzen baitan, nortasun gogoak arazo guztiak konpontzen dituela. Orduan, halako kasuan, zergatik ez galdera honi buruzko erreferendum bat antolatu ?

Nik dakidala, gutako nehor ez da herritar guztiei dagokien halako jarrerarik hartzeko hautatua izan. Gainera, badu buelta bat, eurodiputatua eta « Générations Citoyens » mugimenduko Lehendakaria den Jean-Marie Cavadak animatu mintzaldi-eztabaida bat egon zen, « tokiko erabaki garrantzitsuei buruzko herritar kontsulten erabilpena » gaiari buruz. Halako kontsulta batentzat, Ipar Euskal Herriko herriarteko erakunde bakarraren aukera parada ezin hobea zela iruditzen zitzaioela adierazi zuen hark.

Zergatik orduan halako prozedura bat ez abiatu, prozedura hori lasterka, zalantzekin eta kasik herritarren ez jakinean egin ordez ?

Gaur, nire hautetsi estatusak errealista izatera behartzen nau eta prefeturaren proposamen inposatu baten aldeko bozka emateko ezintasunean aurkitzen naiz. »

Auzapez jaunak lehen bozkatzearekin aldaketarik ez dagoela ohartarazten du, Barbier jaunak aurkako botoa eman baitzuen.

Barbier jaunak « ez baina » bozkatu zuela zehazten du.

Auzapez jaunak eztabaida osoa berriz hartuko ez duela zehazten du, Prefeta jauna gaiari buruz luze eta zabal mintzatu baita. HELEP bakarra sortzen ez bada, Euskal Kosta – Aturri Hirigunearekin eta Hego Lapurdiko Hirigunearekin hirigune elkargoa sortuko litzateke. Baina hori ez da gaurko eztabaidaren aipagaia.

HELEPren proiektua aspalditik ikertua da. Prefeta Herriarteko Lankidetzako Departamendu Batzordeari proposamen bat egitera eta 2017ko urtarrilaren 1ean erakundea plantan ezartzeko herriak epe motzean bozkatzea behartzen duen 2015eko abuztuaren 7ko NOTRe legea auzitan jartzen duela ohartarazten dio Barbier jaunari. Erreferendumak ez da ideia zozoa, alderantziz, baina lehenago galdegin beharra zen. Orain, epeak zein diren ikusirik, argi da Prefetak ezin duela bere eskaera onartu.

Devèze jaunak Barbier jaunaren hitzekin bat egiten duela adierazten du. Jean-Marie Cavadaren hitzaldian parte hartu zuela zehazten du. Haren ustez, herritarrek beren iritzia adierazteko, HELEP bakarraren erabakia lurraldeko biztanleen esku uztea logikoa da.

Nortasunari eta kulturari dagokion atalari buruzko haren iritzia ez da aldatu. Ideia eta tendentzia politiko guztiek aho batez onartuko luketen administrazio-esparru frantses baten

proposatzea oso murriztailea dela pentsatzen du. Eskumenak ez dira batere berdinak. Kontu guztiak kitatzeko saiakera bat dela uste du.

Eztabaidan berriz hasi gabe, eta Barbier jaunak azpimarratu hiru puntuak berriz hartzeko, hau da, eskumenak, fiskalitatea eta gobernantza, hiru oharpen egin nahi ditu :

Gobernantzari buruz : nola funtziona dezake HELEPak hainbeste herrirekin eta ordezkarekin ? Herriarteko Kontseilua edo bulegoa egongo da, baina herri guztiak ez dira ordezkatuak izango. Egunkarien edo astekariaren bitartez, denek ukan dugu arazo honen berri.

Eskumenei buruz : Ura sindikatuarentzat, eta lekuko Uraren sindikatuarentzat oraindik gehiago, uraren eta saneamenduaren arazoak aipa daitezke... Jende ibiltariak aipatuz gero, Prefetaren edo Suprefetaren eraginez jende ibiltariak gure lurraldera bideratuko direla beldur da, Landagoien jarriak izan ziren CRSeekin gertatu bezala. Kostaldearen eta barnealdearen elkartasunaren baitan, Baiona, Biarritz eta beste herriak iragarri bezain solidarioak izanen direla espero du, nahiz ez den horretaz arras konbentzitu.

Fiskalitateari buruz hiru arazo ikusten ditu : garraio ordainketa, Baserrialdeetako Biziberritze Eremuak eta Funtzionamendurako Zuzkidura Orokorra.

Hemengo beste anitz bezala, oroz gainera, enpresa anitz biltzen dituen Kanboko herriko hautetsi bat da. 1995eko kargualdiko lehen urteetan, ekonomia mailan eragiteko aukera handia zen, fiskalitate mailan bereziki. Erietxe, ur onak eta enpresa ttipi eta ertain guztien emaitza zerga biltzeko gaitasuna du Kanboko herriak. Garraio ordainketa beharren aitzinean edo kostaldeko arazoak diruz laguntzeko beharren aurrean, nork gobernatuko eta erabakiko ote du ? Gaur egun, kostaldetik kanpoko auzapez batzuekin aipatu ondoan ere, hirigunean, garraioaren eta finantzamenduaren arazo larri bat dagoela behin baino gehiagotan erraten diote. HELEP horren gobernatzeko jendea egonen delarik, soldata masaren gaineko %2ko garraio ordainketak enpresak azkarki joko dituela beldur da, laguntza neurriak plantan ezarri ere. Laguntza neurriak aurreikustea arazo bat dagoela aitortzea da.

Baserrialdeetako Biziberritze Eremuetan sailkatzeari dagokionez, sailkatze honek 220 herriri eraginen die. Baserrialdeetako Biziberritze Eremuen estimatzeko legea aldatu egin da, eta, orain, herrian egin ordez, HELEParen baitan eginen da estimatzea. Baliabide horren abantaila zuten herriek horrekin jarraitzeko aukera izanen dute hain segur, baina, hemendik aitzina, hartzaile berrien estimatze orokorra lurralde osoaren baitan eginen da. Zoritxarrez, maila horretan, hartzaileak hautatutako funtsezko bi irizpideengatik azkarki kaltetuak izanen dira. Izan ere, fiskalitate gaitasuna eta biztanleria dira bi irizpideak. Hala, herri ttipiak « kaltetuko » dituen biztanle dentsitate handia dago kostaldean.

Herri Elkargoan fiskalitate bakarrarena goraiatu digutelarik, gu, bestalde, Kanboko herrian eragiteko aukerak murriztu direla ohartzen gara. Horretaz denak ohartuak gara. Gure proiektuen finantzatzeko gero eta zailtasun gehiago dugu eta erregularri maileguak egin behar ditugu. Devèze jaunak Kanboko hautetsia dela oroitarazten du. Oroitarazten du ez dela Herri Elkargo baten hautetsia, ez Baionakoa, ez Biarritzekoa. Eta, maila horretan, Kanboko herrian eragiteko aukerak murrizten joango direla adierazten du. Hemendik aitzina, enpresei dirua hartzera jo beharko duela uste du eta enpresak kaltetuak izanen direla beldur da.

Bururatzeko, Europaren alde bozkatu behar izan zelarik gertatutakoaz oroitzea galdegiten du. Auzoko herrialdeetan lan egiteko xantza badu, hala nola Espainian, Italian eta Portugalen. Zoritxarrez, fiskalitatearen eta sozialaren arloan, desberdintasun onartezinak badirela ikusi du. Badu zenbait hilabete, 2015eko azaroaren 22an, Helmut Schmidt zendu zen. Egun batzuk lehenago, Europar Batasuna 28 herrialdeetara hedatzeari buruzko adierazpena egin zuen. Sekulako porrota izan dela zioen, menperatzen ez dugun eta erreakzionatzeko gaitasunik ez duen Europa bat dela. Lehenago, hedatu eta hazkundera ezin menperatu baino lehen, egokitu behar zela. Estatuak 4 edo 5 multzotan bilduz gero, arazoa manera eraginkorragoan konpontzeko balio izango zuela pentsatzen zuen.

Arazoi guzti horientatik, eta HELEParen baitan Europar Batasunarekin gertatutako arazo bera errepikatzeko arriskua ikusten duelako, gaur, kasik gehiengoan den erabaki batekin ez duela bat eginen adierazten du.

Hitzaldi honi erantzuteko, Auzapez jaunak berriz hitza hartzen du.

Devèze jaunak hitzaldia bururatu ez zuela adierazten du eta pentsamendu bakarrik ez egotea onartu behar dela erraten du.

Auzapez jaunak bozkatzerik izan ez dela zehazten du eta ahobatezkotasuna ezin aipa daitekeela dio, gehiengo batez hitz egin daitekeela gehienez. Devèze jaunaren argumentuei erantzuten die. Izan ere, haren ustez, Devèze-n hitzek ez dute osoki errealitatea azaltzen.

Garraio ordainketari dagokionez, zera erabaki dela azaltzen du : enpresei eta herriei zerbitzua eskaintzen ez bazaie, horiek halabeharrez ordaindu beharko dutenez, enpresei eta herriei zero zerga aplikatu dakieke, hau da, garraio ordainketa garraio publikoa jasotzen duten lurraldeek ordaindu beharko dutela. Garraio publikorik jasoko ez duten gurea bezalako lurraldeentzat, 2022 urtea arte zero zerga aplikatu dakieke.

Baserialdeetako Biziberritze Eremuei dagokienez, guti gorabehera 110 herriengan eragina izanen du; ministeriotik jaso erantzun batek zera dio : orain arte horren abantaila zuten herriek abantaila berak atxikiko dituzte. Baliabidea errepikatuko ote den eta beste herri batzuetara hedatzen ahalko den jakitea da galdera.

Fiskalitate bakarrari dagokionez, HELEPari dagokion kanpoko aipagai garrantzitsua da. Azkenean, baina, Herriko kontseiluaren azken bilkuran herriko kontseilariak onartu ordainsariari dagokion neurriari esker, Kanboko herria irabazle aterako da. 2011 urtean, Herri Elkargoak eman zigun Zerga Profesional Bakarraren ordainsaria da hau. Eskumenen eskualdatzearen ondorioz, diru kopuru hau pixka bat murriztua izan zen. Herriko Etxeak, eskumen eskualdaketa hori gertatu baldin bada ere, ordainsari handiagoak jasoko ditu, hau da, Herri Elkargoak 2011 urtean eman zuena baino 200 000 € gehiagokoak. Ondorioz, Kanboko herriak fiskalitate ekonomikoan galdu ordez irabazi egingo du. Kanboko herriak, baina, ez du gehiago aplikatu beharreko zergei buruz bozkatuko.

Bururatzeko, galdera honakoa da : HELEP gauzatuko ez balitz, zein ondorio litzateke Kanboko herriarentzat ? Kanboko herriarentzat eta gure lurraldearentzat, aterabidea euskal kostaldeko bi hiriguneekin biltzea litzateke, eta, beraz, identifikatu ditugun eta egiazkoak diren eskumen, gobernantza eta fiskalitate arazo horiek askoz ere handiagoak izanen lirateke. Horretaz segur izateko, Euskal Kosta – Aturri Hiriguneak garraioaren arloan erabaki dituen inbestimenduak ikustea nahikoa da. Egitura horren finantzamenduan parte hartu behar bagenu, arras kezagarria litzateke. Alderantziz, HELEPan, Ipar Euskal Herri barnealdea eta Lapurdiko barnealdea gehiengoa izanen direla uste du Auzapez jaunak. HELEP gauzatzen ez bada, Prefetak Errobi Herri Elkargoa gure lurraldea euskal kostaldeko bi hiriguneekin bilduko du bortxaz. Orduan bai, zinez gutiengoan izanen gara, hiriguneko herri bakoitzean existitzen diren zorrak ordaintzera beharturik eta inposatutako eskumenekin gainera.

Alderantziz, beraz, bidezkoak diren zalantzen eta arranguren gainetik, Errobiko lurraldearentzat eta Kanboko herriarentzat, euskal kostaldeko bi hirigune gotorren esku utzi eta han gutiengoan izan ordez, Lapurdiko barnealdeko eta Ipar Euskal Herri barnealdeko osagai indartsuekin osatutako Ipar Euskal Herri osoko HELEP bakar bat hobea dela uste du.

Etchelecu jaunak, herritar gisa eta beraz zerga ordaintzaile gisa, entitate honen arras aldekoa dela dio, hiru arrazoiengatik. Entitate erraldoia iduri du, baina gauzak erraztuko ditu. Ipar Euskal Herrian, 10 lehendakari, 73 lehendakariorde eta 384 kontseilari izatetik, lehendakari 1, 15

lehendakariorde eta 232 kontseilari izatera pasako gara. Adimen kolektiboan eta entitate berri honen baitako gure ordezkarien adimenean sinesten du. Elkarlanerako ikuspegiarekin 200 hautetsi bildu dituzten Hazparneko tailerrek erakutsi duten bezala, HELEP lurralde honetako herritarren interesen arabera egitura federatzailea eta eraginkorra izatea espero du.

Enpresaburu gisa ere horren alde agertzen da, Ipar Euskal Herriko lurraldean ehun bat langile enplegatzen dituelako. Ikerketa, formakuntza eta kompetentzia poloen eraikuntzaren alorrean maila handiko neurriak hartzeko gobernantza eskala interesgarria dela deritzo. Eskualde handi berrian, lurralde osoaren izenean negoziatzeko indar nahikoa izanen duen entitatea dela uste du. Ipar Euskal Herriaren ordezkartzaren porroskatzea kaltegarria litzatekeela pentsatzen du.

Kanboar gisa, Ipar Euskal Herri barnealdearen, kostaldearen, arras hirikoak diren eremuen eta baserrialdeko eremuaren artean aurreikusitako gobernantza orekatuagoa dela uste du. Hala, Kanboko herriaren interesak halako egitura batean hobeki babestuko direla pentsatzen du. Bestela, arras hirikoa den egitura batean, Kanboko herria gutiengoan litzatekeela uste du.

Geografiari ere begiratu behar zaio. Kanboko herria etorkizuneko HELEParen erdigunean egongo litzateke, hau da, azpiegitura guztien bidegurutzean. Lurraldearen erdigunean izateak Kanboko herriari onura ekarriko dio, eta HELEParen etorkizuneko funtzionamenduan ondorioak izan ditzake.

Bukatzeko, Kanboko herria Labéguerie-ren herria dela ez du ahanzten. Kanboko herriak ez diezaioke hitzordu honi huts egin.

Hitzaldi hori emateagatik Etchelecu jauna eskertzen du Auzapez jaunak, eta beste argumentu bat ere gehitzen du, 95 sindikatutik 40ra eta gero 20ra pasatzea. Sindikatuen mapa ere sinplifikatzen da.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Alde bozkatu dutenak : Bru jauna, Bardin jauna, Lespade anderea, Irastorza jauna, Saint-Jean jauna, Pontacq anderea, Goytino jauna, Dor jauna, Huguenard anderea, Lassus jauna, Hirigoyen Argitxu anderea, Magi jauna, Etchelecu jauna, Hirigoyen Maryannick anderea, Gonzalez anderea, Bourguet jauna, Hiriart-Urruty anderea, Bacardatz jauna, Aicaguerre anderea, Michelena jauna.

Kontra bozkatu dutenak : Devèze, Barbier eta Jenvrin jaunak, Aizpuru eta Larronde andereak.

Abstenitu direnak : Jougleux, Noblia, Despéries eta Othatceguy andereak.

#### **4 – Karabanendako gunearen antolaketa : tokiko inbestimendu publikorako diru laguntza.**

Lekuko elkargoek eskaera eginez gero, Frantziako estatuak, aurtengo bakarrik, diru laguntzak badituelako informazioa zerbitzuen zuzendari orokorrari iritsi zaiola oroitarazten dio Auzapez jaunak Herriko kontseiluari. Tokiko inbestimendu publikorako diru laguntza jasotzeko, Herriko Etxeak txosten zenbait aurkezteko asmoa du. Ahal bezainbat txosten aurkeztea proposatzen da, Baionako arrondizamenduari esleitzen zaion guztia banatua izatea delarik funtsezkoena.

Lehen txostena karabanendako gunearen antolaketarena da. Herriko kontseiluari zergarik gabeko 770 000 euroko kostu orokorra duen inbestimendu proiektua onartzea galdegiten zaio. Bi

lursailak zergarik gabeko 370 000 euroko prezioan erostea eta obrak eta ordainsariak zergarik gabeko 400 000 euroko prezioan ordaintzea aurreikusten ditu inbestimendu proiektuak. Hala, finantzamendu plana diru laguntza eskaera txostenean aurkeztua izan den gisan onartzea eta Frantziako estatuari tokiko inbestimendu publikorako diru laguntzaren eskaera egitea eskatzen zaio Herriko kontseiluari.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

## **5 – Autobusendako gunearen antolaketa : tokiko inbestimendu publikorako diru laguntza.**

Michel Labèguerie kirol eremuaren ondoan, Herriko Etxeak autobusendako gune baten antolatzen hasi nahi duela oroitarazten du Auzapez jaunak. Autobusak, ibilgailu arinak eta bi errotako ibilgailuak heltzeko eta aparkatzeko balio luke guneak. Errepideko eta oinezkoen zirkulaziorako segurtasun neurriak hartzeko parada litzateke. Lehen mailako eta bigarren mailako ikastetxeetatik, kirol muntadura guztietatik (estadioz, herriko igerilekua, tenis zelaia) eta auzoetako biztanleengandik arras hurbil den gune horrek dituen beharrei erantzunen lieke egitasmoak.

Herriko kontseiluari zergarik gabeko 217 480 euroko kostu orokorra duen inbestimendu proiektua onartzea galdegiten zaio. Obralaria zergarik gabeko 6 980 euroko prezioan ordaintzea eta antolamendu obrak zergarik gabeko 210 500 euroko prezioan ordaintzea aurreikusten ditu inbestimendu proiektuak. Hala, finantzamendu plana diru laguntza eskaera txostenean aurkeztua izan den gisan onartzea eta Frantziako estatuari tokiko inbestimendu publikorako diru laguntzaren eskaera egitea eskatzen zaio Herriko kontseiluari.

Michelena jaunak txosten batetik bestera diru laguntzen eskaera tasak ezberdinak direla ohartarazten du eta zerga kopuruen aldaketa horren esplikatzeari galdetzen du.

Diru laguntza eskaerak obrentzat aurreikusitako zenbatekoaren arabera eta lurralde kontratuaren edo bestelako diru laguntzen baitan jasotakoaren arabera kalkulatuak direla zehazten du zerbitzuen zuzendari orokorrak. Ondorioz, Herriko Etxeak baimendutako diru laguntza gorena eskatzen du.

Michelena jaunak % 100 eska daitekeen galdetzen du.

Auzapez jaunak ezetz erantzuten dio. Frantziako lege publikoan, diru laguntzek ez dezakete inbestimenduaren %80 gaindi. Ondorioz, eskas den %20a herriaren gain da.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

## **6 – Herriaren erdialdearen antolaketa : tokiko inbestimendu publikorako diru laguntza.**

Herriko kontseiluak elizako plaza antolatzen hasteko erabakia hartu nahi duela oroitarazten du Auzapez jaunak. Bide nagusiko merkataritza berriz biziarazteko eta oinbideen eta errepideen helgarritasuna indartzeko xedea du egitasmoak.

Herriko kontseiluari zergarik gabeko 600 391,53 euroko kostu orokorra duen inbestimendu proiektua onartzea galdegiten zaio. Hala, finantzamendu plana diru laguntza eskaera txostenean aurkeztua izan den gisan onartzea eta Frantziako estatuari tokiko inbestimendu publikorako diru laguntzaren eskaera egitea eskatzen zaio Herriko kontseiluari.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

## **7 – Sorhainde plazaren antolaketa : tokiko inbestimendu publikorako diru laguntza.**

Zirkulazio norabideak errazteko, aparkalekua antolatzeko eta bereziki mendebaldera buruz zabaltzeko, Herriko Etxeak Sorhainde plaza antolatuko duela oroitarazten du Auzapez jaunak. Egitasmo honentzat, gaur egun existitzen den eraikinaren kokaleku berdina atxikiko da (autobus aterpea eta garbigela eta komunak), baina eraikina suntsituko da eta mugikortasun ahalmen urria duten pertsonen aldeko legediaren araberrako autobus geltoki bat eraikiko da.

Herriko kontseiluari zergarik gabeko 230 170 euroko kostu orokorra duen inbestimendu proiektua onartzea galdegiten zaio. Obralaria zergarik gabeko 7 170 euroko prezioan ordaintzea eta antolamendu obrak zergarik gabeko 223 000 euroko prezioan ordaintzea aurreikusten ditu inbestimendu proiektuak. Hala, finantzamendu plana diru laguntza eskaera txostenean aurkeztua izan den gisan onartzea eta Frantziako estatuari tokiko inbestimendu publikorako diru laguntzaren eskaera egitea eskatzen zaio Herriko kontseiluari.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

## **8 – Herriko eraikinen eraginkortasun energetikoaren hobekuntza : tokiko inbestimendu publikorako diru laguntza.**

Herriko Etxeak gai honi buruzko bi erabaki hartu behar dituela zehazten du Auzapez jaunak, alde batetik tokiko inbestimendu publikorako diru laguntzarena eta bestetik lurralde kontratuarena.

Obra horiek duela bi urte hasitako herriko eraikinen arraberritze planaren baitan sartzen direla oroitarazten du Goytino jaunak. 2015eko udan, ama eskolako eraikina osoki arraberritu zen; hobetzekoak diren gainerateko eraikinak Herriko Etxeko bigarren estaia, Zerbitzuen Zentroa, lehen mailako eskolako eta Kanbo Behereko eskola dira. Energia kontsumoaren eta erosotasunaren aldetik, eraikinak hobetzeko obra batzuk aurreikusiak dira. Lurralde kontratuaren parte gisa, obra horiek burutzeko 75 000 euroko diru laguntzak lortu ziren; obren azken tartearantz, diru kopurua pixka bat gainditu denez, Herriko Etxeak tokiko inbestimendu publikorako diru laguntza eskaera egiten du.

Obra horiek lurralde kontratuan sartu zirela zehazten du Auzapez jaunak. Kontseilu Orokorrak txosten hori aurkeztearen garrantzia azpimarratu zuen, segurki beste herri gutxiak ukan baitzuten herriko eraikinen eraginkortasun energetikoaren hobekuntza aipatzeko ideia. Akitaniako eskualdeak lizeoentzat eta Pirinio Atlantikoetako departamenduak kolegioentzat duten arrangura bat da hau. Herriko Etxeak maila horretan ere badu hobetzekoa.

Hiriart-Urruty andereak Kanbo Behereko eskolako prefabrikatuarekin zer gertatuko ote den galdetzen du. Izan ere, bildumaren ondorioetan zera aipatzen da « halako eraikin batean ez daiteke

eraginkortasun energetikoa hobetu, salbu eraikin hori utzi eta ekai gogorrez egin eraikuntzak eraikitzen baldin badira ».

Goytino jaunak prefabrikatua deus ezin dela egin erantzuten dio. Eraikina energia iragazki bat da, hotza egiten duelarik berehala berotzen da, eta berotasun guziak ihes egiten du. Prefabrikatua isolatzeko asmoa izatea ez da beraz zentzuzkoa. Hortaz, prefabrikatua aldatzeko asmoa dute.

Noblia andereak prefabrikatu hori goizeko eta arratseko haurtzaindegiarentzat eta irakaskuntza postu erdi batentzat erabiltzen dela zehazten du. Duela 30 edo 40 urtekoa den prefabrikatu honen berokuntza hobetzea ezinezkoa da. Ekai gogorrez egin eraikuntza batekin ordezkatzeko aipatu dute.

Hiriart-Urruty andereak haurrak baldintza onetan eskolatuak izatea behar-beharrezkoa dela gehitzen du eta eraikuntza honen kostua zifratu balioztatu ote den galdetzen du.

Auzapez jaunak prefabrikatuak 30 urte baino gehiago dituela gehitzen du eta herriko langileek prefabrikatua instalatzeko tenorean egin lanaren kalitatea azpimarratzen du. Herriko Etxeko zerbitzuek eraiki zuten betoizko lauza baten gainean jarria izan zelako iraun du hain luzaz. Erosotasunaren eta energiaren aldetik, eraikina guztiz zaharkitua da. Eraikin horrekin gasturik ez izatea da asmoa. Hala, ondoko urteetan, gai gogorrez egin eraikuntza batekin ordezkatzeko, berokuntzaren atala biltzen duen finantzabide bat ikertuko da.

Hiriart-Urruty andereak lehen mailako eskolako korralearen arazoa aipatzen du. Txostenak zera dio : « berotegi efektua eta baldintza itogarriak ttipitzeko, haizeztapen mekanikoa egitea proposatzen dugu. Aire mekanikoki kanporatzea eta kanpoko airea barnera sarraraztea da asmoa ». Bero egiten duelarik, kanpoko airea barnekoa bezain beroa dela gehitzen du Hiriart-Urruty andereak.

Goytino jaunak ezetz ihardesten dio. Barneko korraleak gainean berina leiho bat duenez, bero delarik, berotegi efektu bat sortzen da. Berotegi efektu honek berotasuna indartzen du eta barnean kanpoan baino beroago delako sentazioa ematen du. Airearen arraberritzeak berotasuna kanporatzeko ahala emanen du. Goizez, pertsonak gelara sartzean, tenperatura goxoa izan dadin, haizeztapen mekanikoa gauzez ere martxan ezartzea aurreikus daiteke.

Hiriart-Urruty andereak klimatizazio sistema jartzea aurreikus daitekeen galdetzen du. Udan, aisialdi zentroak eraikina erabiltzen du. Goizez tenperatura onargarria baldin bada ere, arratsalde zinez bero da eta tenperatura ezin jasanezkoa da. Aire beroa inarrosi beste deus egiten ez duen haizeztatze sistemaz gain, ba ote da beste sistema egokirik ?

Goytino jaunak kabinete batek ikerketa lana burutu zuela erantzuten dio. Kabineteak sistema hori lehenesten zuen. Beste aukera eraikina eta teilatua berriz egitea litzateke, baina kostua ez litzateke bera. Haizeztatze mekanikoa eta aire aldaketa sistema horrekin emaitza aski eroso izanen zela erran zuen kabineteak.

Auzapez jaunak kabinetearen gomendio hori behin betikoa ez dela adierazten du. Ikerketa horretan oinarritzen diren zerbitzu teknikoek soluzio hau entseatu behar dela diote. Egoera hobetuko du, baina eraikin horren inguruan izan daitezkeen nahikunde guztiei ez die erantzunen. Lehen urratsean, soluzio honen ekarpenen egiaztapen bat egingen da. Erabiltzearekin, egiaztapena negatiboa baldin bada, orduan, eraikinaren arkitektura aldatu beharko da. Eraikina osoki hetsia ez denez eta ateak irekirik baitira, klimatizazioa instalatzea zaila da.



Michelena jaunak iritzi pertsonala adierazten du. 14 urtez korrale horretan egona da. Aire girotu proposamen honekin, aski dudakor agertzen da. Egia da arratsaldeetan biziki bero dela hor, baina halako beroa delarik, nehor ez da hor azpian egoten. Emaidza eskas batentzat inbestimendu handia egin behar izatea beldur da. Gainera, atea hetsirik atxiki behar lirake, eta, horrek, haurrak komunetara joaten direlarik arazo bat sortzen du.

Eskaera Aisialdi Zentroak egin duela gehitzen du Noblia andereak.

Erabilpen ezin hobea lortzeko, eta, beraz, atea irekitzeko eta hesteko, eraikinaren erabiltzaileen laguntza beharko dela zehazten du Goytino jaunak.

Hiriart-Urruty anderearen ustez, jendeen joan-jinengatik, eraikinaren erabiltzaileen laguntza eskatzea kasik ezinezkoa da. Haurrei ezin zaie etengabe atea irekitzea eta hestea galdegin. 12 000 euroko inbestimendua dela ohartarazten du eta dirua nolana hika xahutzea ez ote den galdetzen du.

Kabineteak gomendatu duen haizeztatze mekanikoa entseatu behar dela ihardesten dio Goytino jaunak.

Berotasuna gauez kanporatzea errazago izanen dela gehitzen du Bacardatz jaunak. Arratsaldearen erdian, eguzki betean, aire beroa xurgatuko denean, airea itzal gune batetik hartzen ez baldin bada, segur da airearen kanporatzea ez dela egunez egingen.

Gela barnera sartuko den aireak oraingo egoera baino ongizate sentazio handiagoa ekarriko duela zehazten du Goytino jaunak. Argi da ez dela 15 graduko gela klimatizatu bat izanen, baina oraingo egoeraren hobetzea igurika daiteke.

Auzapez jaunak argumentu guzti horien berri hartu duela adierazten du. Laguntzak eta gomendioak jasotzen dituen 12 000 euroko finantzamendu plana ikusirik, haren iritzi, sistemaren ez entseatzea domai litzateke. Erabiltzearekin, bilan bat egin beharko da : maiatzean, ekainean eta irailean eskolentzat, eta, udan Aisialdi Zentroarentzat.

Hiriart-Urruty andereak antolaketa berria udan praktikan jarriko ote den galdegiten du.

Goytino jaunak ezetz ihardesten dio.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Herriko kontseiluari zergarik gabeko 165 550 euroko kostu orokorra duen (obrak eta ordainsariak) inbestimendu proiektua onartzea galdegiten zaio. Hala, finantzamendu plana diru laguntza eskaera txostenean aurkeztua izan den gisan onartzea eta Frantziako estatuari tokiko inbestimendu publikorako diru laguntzaren eskaera egitea eskatzen zaio Herriko kontseiluari.

Aho batez onartua da.

Herriko kontseiluari zergarik gabeko 299 000 euroko kostu orokorra duen herriko eraikinaren eraginkortasun energetikoaren hobekuntzarako inbestimendu proiektua onartzea galdegiten zaio. Hala, finantzamendu plana diru laguntza eskaera txostenean aurkeztua izan den gisan onartzea eta Frantziako estatuari tokiko inbestimendu publikorako diru laguntzaren eskaera egitea eskatzen zaio Herriko kontseiluari.

Aho batez onartua da.

## **9 – Diru laguntzak.**

Gai zerrendatik « diru laguntzak » aipagaia kentzeko galdegiten dio Auzapez jaunak Herriko kontseiluari. Izan ere, Elkargoko kontseiluan erabaki ziren diru zametarik kopuru ezberdinak deliberatu dituzte Herri Elkargoko hiru herrik. Herri Elkargoa egitasmo horretan laguntzen duen legelariak diru laguntza horiei buruz ez bozkatzea gomendatzen die herriei. Herri guztiek Elkargoko kontseiluan erabaki denaren diru zama berdina deliberatzea itxaron dezatela aholkatzen die. Ondotik, bai, herri bakoitzak diru laguntzentzat hautagarri diren egitasmoei buruz erabakiko du.

Aitzineko kontseiluan aipatu bezala, proiektu guztientzat diru laguntzak %50ekoak ez izatearen arrazoia zein den galdetzen du Bacardatz jaunak.

Auzapez jaunak legea oroitarazten du. Herriko Etxeak egitasmoentzat aurreikusitako kostua aurkezten du. Egitasmo bakoitzarentzat, gainerateko diru laguntzen kopurua kentzen da. Gero, eskas den diru kopuruaren %50 Herri Elkargoak bere gain hartzen du.

## **10 – Skate park baten eraikuntza : obrak.**

Herriko Etxeak Kanboko Michel Labèguerie kirol eremuan skate park baten eraikitzeko obralaria xerkatzen duela eta buru lan zerbitzurako merkatu bat zabaltzen duela jakinarazten die Irastorza jaunak Herriko kontseiluko kideei. Kirol ezberdinak hartzeko gaitasuna izanen lukeen erabilera anitzeko lekua eraikitzea da xedea : skate, roller, BMX, trotinete...

600 m<sup>2</sup>ko azalera, zergarik gabeko 180 000 eurotan aurreikusitako aurrekontua duen egitasmoa da. 2016ko apirilaren 8an, ostiralarekin, agiria argitaratzeko bidalia izan da. Eskaintzak aurkezteko eguna honakoa da : 2016 apirilaren 26a, asteartea, 12:00etan.

Gutun-azalen irekitzeko, Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordea 2016ko apirilaren 26an bildu zen. Bi eskaintza jaso ziren, HALL04 & Cie kabinetearena eta Atelier de paysages – conception skate park sozietate elkargoarena.

Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordea 2016ko maiatzaren 2an bildu da. Zerbitzu teknikoan bete analisi-txostenaren aurkezpena iragan ondoan, Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordeak HALL04 & Cie kabinetearen eskaintza onartzea proposatzen du.

Hastapen batean aurreikusitako lekuan, hau da, igerilekuaren mugan den trebatzeko bigarren mailako zelaiaren gaineko ordokian, skate parkea egitea zaila izanen dela zehazten du Irastorza jaunak. Izan ere, zelai horren zati bat eremu oihantsu gisa ekarria da. Hortaz, proiektua Michel Labèguerie kirol eremuan gauzatuko da, zelai egonkortuan. Hala, eskoletatik hurbil eta scooterez jinen diren gazteentzat aparkaleku batekin, bi tenis jokaleku estaliak, skate parkea eta futbol zelaitxoak elkarren ondoan ezartzeko aukera izanen da.

Egoera geografiko horren interesa aparkalekua handitzeko club house gibelean den tenis jokalekuaren eremua berreskuratzea dela gehitzen du Auzapez jaunak.

Kokaleku berri horrek zelai egonkortuan eskolendako gutienez 30 metroko bidea uzteko aukera ematen duela zehazten du Bardin jaunak.

Bacardats jaunak planoko karratuak eskalan eginak izan ote diren galdetzen du.

Bardi jaunak ezetz ihardesten dio.

Bi tenis jokalekuak (1 000 m<sup>2</sup>), skate parkea (600 m<sup>2</sup>) eta futbol zelaitxoak (288 m<sup>2</sup>) hartuko dituen zelai egonkortua 2 000 m<sup>2</sup>ko azalera izatea harrizten da Bacardats jauna. Neurriak berrikustea galdetzen du.

Muntadura guztiak hor biltzen ahal direla ihardesten dio Bardin jaunak.

Skate parkearen eskaera 400m<sup>2</sup> eta 600 m<sup>2</sup> artekoa dela zehazten du Irastorza jaunak.

Skate park proiektua kanboarrekin batera ikertu ote den galdetzen du Bacardatz jaunak. Kanbon gisa horretako muntaduren beharrik ba ote da ?

1995eko lehen kargualdiaz geroztik, kanboar gazteek behin baino gehiagotan halako ekipamendu bat galdetu diotela erantzuten dio Irastorza jaunak.

Herrian eta espazio publikoetan bereziki, erregulariki, skatean ibiltzen diren gazteak ikusten direla gehitzen du Auzapez jaunak. Amaturrak eta Kanboko hiru kolegioetako ikasleak ibiltzen dira skatean. Kanboarrak ez diren, baina kirola egitera Kanbora heldu diren eta Kanbon eskolatuak diren gazte anitz badira. Tresna horrek skatean ibiltzeko gogo berriak sortuko ditu eta elkarteak sortzeko gogoak piztuko ditu. Hauteskunde kanpainan agertu hutsune baten ondorioz garatu zen proiektu hau : nerabeendako zer egin ? Kanbo bezalako 7 000 biztanleko herri batean skate park bat eta futbol zelaitxo bat ukaitea abantaila handia da. Gure herriaren erdigune izaera indartzen du.

Muntadura horiek eskolaldi inguruko jarduerentzat ere erabiltzen ahalko direla zehazten du Irastorza jaunak.

Beste antolamendu guztientzat bezala, Herriko Etxean, proiektua aurkezteko informazio bilkura bat antolatuko dela gehitzen du Jougoux andereak.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

## **11 – Euri uren kudeaketarako gida-eskema baten finkatzea : ikerketa bulego baten izendapena.**

Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordearen bilkura anitz iragan direla oroitarazten du Devèze jaunak. Euri uren kudeaketarako gida-eskemaren diagnostiko bat egingo du Herriko Etxeak. Diagnostiko horren ondotik, obren egitaraua eta eremuen mugatzea finkatuko eta orain berrikusten ari garen HTPan agertuko dira. Euri isurien alde kuantitatiboa eta kualitatiboaren arabera eta uraren legearen, Uren kudeaketa eta antolaketarako gida-eskemaren (SDAGE) eta Uren kudeaketa eta antolaketarako eskemaren (SAGE) arabera atxikitako antolamendu arauak ontzat emateko aukera izanen da ikerketa hau. Ur baliabidearen erabilpenari eta ura atxikitzeko eremuen hidrografia plangintzari dagokio, bereziki.

Otsailean kontsulta bat zabaldu zen, gutun-azalak berantetik martxoaren 4an aurkezteko epearekin. Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordeak gutun-azalak martxoaren 8an ireki zituen. Ondorioak aurkeztu ondoren, hautagaiei xehetasun gehiago galdetzea erabakia izan zen.

Ikerketa berri baten ondotik, eta martxoaren 21eko Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordean aztertutako analisi-txostenaren ondotik, saio honen bukaeran, argibide gehigarriak eskuratzeko zerbitzuei laguntza eskatu die batzordeak.

Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordea egun bildu da. HEA eta Artelia bi ikerketa bulegoen eskaintzan aztertu ondoan, Herriko kontseiluari Artelia bulegoa hautatzea eskatzen zaio. Artelia bulegoaren lanak zergarik gabeko 64 994 euroko kostua luke, eta HEA bulegoak 67 015 euroko aurrekontua aurkezten zuen. Arteliaren proposamenean sartu duten balio galtze bat dagoela zehazten du Devèze jaunak. Balio galtzea baliatuz gero, zerbitzu batzuk herriko langile batek egin litzake.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

## **12 – Karabanendako gunea : diru sartzeak eta prezioak kontrolatuko dituen konpainia baten sortzea.**

2015eko uztailaren 20ko eta 2015eko azaroaren 30eko erabakiz, Herriko Etxeak, Mulienea aktibitate gunean, zergarik gabeko 368 900 euroko prezioan, 4 340 m<sup>2</sup>ko azalera duten bi lursail erosi dituela jakinarazten die Irastorza jaunak Herriko kontseiluko kideei.

2015eko abenduaren 21ean, Herriko kontseiluak karabanendako zerbitzu eta harrera gune baten antolaketa obrak egiteko proiektua onartu zuen Herriko kontseiluak. 44 aparkalekuko gune honek zergarik gabeko 368 300 euroko kostua izatea aurreikusten da.

Karabanendako gunearen erabiltzeari loturik, diru irabaziak kobratuko eta aparkalekuaren eta bestelako zerbitzuen prezioak finkatuko dituen konpainia honi buruzko iritzia adierazi behar luke Herriko kontseiluak. Horra prezio proposamenak :

24 orduko aparkatzeak : 10 €, 0.75 €ko egonaldi zega barne. (Barne diren zerbitzuak : ura, olio aldaketa, elektrizitatea, wifi)

Aparkatzeaz kanpo eskainitako zerbitzuak :

Ura : 2.50 € (100 litro edo 10 minutu)

Olio aldatzea : urrik

Obren batzordean karabanendako gune honetan burutu lanak aurkeztuak izan direla baina planorik erakutsi ez dela erraten du Aizaguerre andereak. Herriko Etxean baimena kontsultatzera jin da eta gune hau UY eremuan kokatzen denez, harriztua da. UY eremuaren araudiak karabanendako guneen antolaketa debekatzen du. Herriko kontseiluaren aitzineko saioretan, Mulienea aktibitate gunea beti aipatu da, gune hau UY eremua zela sekula zehaztu gabe. Nola da posible beraz karabanendako gunea hor egin ahal izatea ?

Auzapez jaunak UY eremua aitzineko HTPren berrikuste momentukoa dela ihardesten dio. Orain arte gune hau UY bi eremuak lotzen zituen iratzelekua zen. Herriko Etxearen nahia UY bi lursail ttipiak eta gune hau batzea zen, eta, hala, Mulieniaren jabegoa zen lur zati honek funtzio ekonomikoa betetzea. Egia da UY eremu bat ez dela gisa horretako ekipamenduetarako egokiena. Herriko Etxeak eremu ekonomiko bati dagokiola estimatzen du, Herriko Etxeak antolatutako industria eta merkataritza zerbitzu publikoa baita, eta herriari dirua ekartzen diona, gainera. Horrek ekonomiaren, turismoaren eta ur onen jarduerak indartzen ditu. Kanbo bezalako ur onen herrian, herriak halako ekipamenduak behar ditu. Herri Elkargoak ere aukera hau balioetsi eta onartu du.

Gaur egun, Herriko Etxean HTPren berrikuste orokorra egiten ari gara. Gune honek interes orokorreko jarduerak hartzen ahalko dituela idatziko da araudian. Behin obrak burutu eta, Herriko Etxeak UY eremua NL (Naturala, Aisialdirako bokazioarekin) eremu gisa aldatzen ahalko du.

Kanboko herriak egitasmo honen ondorioz bilduko dituen abantailak gorago aipatu desabantailekin parekatuz gero, abantailak nabarmenak dira. Herriko Etxeak ez du legez kontrako gauzarik egiten eta araudiaren aldaketa aurreikusten du. Auzapez jaunaren ustez, karabanendako gunen baten sortzearen eta gainera leku horretan egitearen zentzukotasuna dudan ezartzea zaila da.

Obrak hasi aitzin bilkura publiko bat iragan zen eta argumentu horiek adierazi ziren. Funtsez nehorik ez du proiektuaren baliagarritasuna eta kokapena dudan ezarri. Gunearen heina etxeen heinaren azpian denez, tokiko bizitzaileak lasaituak dira. Lavigerie Kardinalaren etorbidean segurtasun neurriak indartzea galdetu dute.

Tokiko bizitzaileak proiektu baten aurkezpenera gomituak direlarik, etortzen direla, mintzatzen direla eta horrek aterabideak ekartzen dituela ohartarazten du Bacardatz jaunak. Beste proiektu batzuentzako ere berdin egin zitekeen.

Herriko Etxeak legearen arabera jokatu nahi izan balu, egitasmoa sei edo zortzi hilabetera gibelatu beharko zukeela gehitzen du Bardin jaunak, eta, orduan, diru laguntzarik ez zukeela jasoko. HTPren berrikusketa egina. Interes orokorraren arabera aritu behar da. Igande goizean kirol eremuko aparkalekuan 25 karabana baziren. Horretarako egina den leku batean ikusi nahi ditu.

Karabanendako gunea dudan ezartzen ez duela zehazten du Aïçaguerre andereak.

Azalpen guzti horiek proiektua aurkeztu zen egunean eman ez izana deitoratzen du Michelena jaunak. Hiru hilabete geroago, ez zen arazorik egongo. Hori erranik, ez da proiektuaren aurka agertzen eta Kanboko herriak halako gunen bat behar duela argi du.

Bilkuran gai hori aipatua izan zela, eta, orduan, Herriko kontseiluan egin bezala erantzun zuela gehitzen du Auzapez jaunak.

Auzapez jaunak banku txartelarekin funtzionatuko duen diru sartzeen konpainia sortzeari buruz bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

Auzapez jaunak prezioei buruz bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

### **13 –Banakarendako alokatze kontratuaren proiektua.**

Nathalie Gonzalez anderearekin alokatze kontratua izenpetzeari buruz bere iritzia ematera gomitatua dela jakinarazten dio Dor jaunak Herriko kontseiluari. Txosten horren historia oroitarazten du. Laborde etxearen arraberritzearen ondotik, eraikin horren etxe beheko egoitza ofiziale lan batean ari den pertsona bati utzi nahi izan zion Herriko Etxeak. Proiektu ezberdinak ikertu ondoan, berinagilea den Gonzalez anderearena onartua izan zen. Denen artean adosturik, Gonzalez anderearekin urte bateko iraupena duen iraupen laburreko alokatze kontratu bat izenpetu zen.

Urtearen bukaeran, 3-6-9 urteko merkataritza alokatze kontratuarekin segitzeko prest zela adierazi zion Gonzalez andereak Herriko Etxeari. Bilan kuantitatiboa baikorra da. Gonzalez andereak egoitzari balioa ematen jakin izan du. Alderdi ekonomikotik eta alderdi estetikutik ere, sortu dituen edo beste eskulangile batzuek egin dituzten produktuak erakutsiz, lan jarduera garatu ahal izan du.

2016ko ekainaren 1etik goiti eta 9 urteko iraupenarekin, Kanboko herriaren eta Nathalie Gonzalez anderearen artean izenpetuko den merkataritza alokatze kontratu xedea irakurtzen du Dor jaunak. Hilabetean 550 eurokoa da alokairua, eta berme gisa bi hilabeteko alokairuen balioa duen 1 100 euro ekarri behar dira. Alokaturako ondasuna soldagailua erabiltzen duen berinagile lan jarduerara eta ekoizpenen salmentara zuzendua da, osoki. Ez da egoitzaren bestelako erabilpenik onartzen.

Oinarrizko alokairua 520 eurokoa zela zehazten du Dor jaunak. Gonzalez anderearen lan jarduera bideragarria izateko gisan, alokairua gehiegi ez igotzeko erabakia hartua izan da.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga alokairuari gehitzen ote zaion galdetzen du Hiriart-Urruty andereak.

Alokairuan BEZik ez dagoela ihardesten dio Dor jaunak.

Alokatze kontratu xedean lauki anitz markatu gabeak direla ohartarazten du Hiriart-Urruty andereak.

Laukiek markatu gabe egon behar dutelako hala direla ihardesten dio Dor jaunak. Laukiak halabeharrez agertzen dira. Markaturako laukiak dira garrantzitsuak.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

## **14 – Elkarreendako diru laguntzak.**

Kanboko herriaren aurrekontu orokorraren parte gisa bozkaturako diru laguntzetarik gainera, beti berantean egin eskaerak edo eskaera berriak badirela oroitarazten du Auzapez jaunak.

Itsasuko Xapata elkarrearen kasuan, adibidez. Kanboko herria hunkitzen du. Izan ere, geroan labela jaso lezakeen gereziondoen eremu geografiko baten ikerketa abiatzea da xedea. Iazko 500 euroko diru laguntza errepikatzea proposatzen du Auzapez jaunak.

Bigarren diru laguntza Emaizta elkarreari dagokio.

Bi elkarreentzat iazko 500 euroko diru laguntzak errepikatzea proposatzen du Auzapez jaunak.

Emaizta elkarreak Paskaleku txapelketa garaian dutxen eta komunen alokatze kostuak (2015 urtean 600 €) Herriko Etxeak bere gain har ditzakeen galdetu duela zehazten du Lespade andereak. Baietz ihardetsi diete.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

## **15 – Eremu urdin baten plantan ezartzea.**

Herriaren erdialdean aparkatzeko diren zailtasunak oroitarazten ditu Jogleux andereak. Egoera baikorra da, baina, auto geldiak ukan ordez, ibilgailuen aldizkatzea bultzatuko duen sistema bat aurkitu behar da. Herriaren erdialdean eremu urdin bat plantan ezartzea proposatzen da

ondorioz. Epe mugatuko aparkatzeak bultzatuko ditu, urririk beti. Ereduak Duhalde plaza, Herriko Etxeko etorbidea, Txikito karrika, trinketeko karrika, Xerri Karrika (lehen 4 lekuak), tillura ondoen karrika, terrazen karrika, elizako aparkalekua, San Laurendi karrika eta San Josep parkea (Vestiboutique ondoko 2 lekuak) bilduko ditu.

2016 urte bukaeran burutzea aurreikusten diren obrak bukatu eta gero, Sorhainde plaza ere eremu urdinera pasako da. Herriko Etxeko aparkalekua berantago pasako da eremu urdinera, hau da, mediateka eta postetxearen azpian lur azpiko aparkalekuaren antolatzea amaitua izan delarik. Lurpeko aparkalekua Herriko Etxeko, mediatekako, HJLZko, postetxeko, Departamenduko Elkartasun Etxeko langileek erabiliko dute. Hala, Herriko Etxeko aparkalekuko lekuak libratuko dira.

Herriko langileek aparkaleku propioa izango dutelarik, parean bizi diren saltzaileek aparkatzeko pilota plazara joan beharko dutela nola azalduko ote zaien galdetzen du Bacardatz jaunak.

Herriko Etxeko aparkalekua eremu urdinean ez bada, hor aparkatzen ahalko direla ihardesten dio Jogleux andereak.

Hiriart-Urruty anderearen ustez soluzio hau ez da logikoa. Lurpeko aparkalekua herriaren erdialdean izango da, hastapeneko helburua saltegiatzat herriaren erdialdean lekuak libratzea zelarik.

Eredu urdina herriaren erdialdean ezartzeak ibilgailuen aldizkatzea bultzatuko duela eta ondorioz aparkatzeko lekuak libratuko direla zehazten du Jogleux andereak.

Herriko Etxeko langileak hurbil den lorategi publikoko aparkalekuan aparka daitezkeela gehitzen du Hiriart-Urruty andereak.

Eredu urdinaren plantan ezartzea etapaka egingen dela dio Jogleux andereak.

Eredu urdina momentu horietan ezarriko dela gehitzen du Jogleux andereak : asteartetik ostiralera, 09:00etatik 12:00etara eta 14:00etatik 18:00etara, eta, larunbat goizetan, 09:00etatik 12:00etara. Besta egunetan, igandetan eta karrikan zirkulazio ezaren erabakia izanen delarik (merkatu egunak, braderia, euskal pastizaren besta...), eremu urdina ez da ezarriko. Autoan aparkatzeko disko bat ezarri beharko da. Herriko Etxeak lehen diskoa eskainiko du, eta herriko aldizkariarekin batera helduko da : familiako disko bat, bestea saltegiatan edo zehaztutako leku batzuetan erosi beharko da. Araudia errespetatzen ez bada, 1. mailako isuna jarriko da.

Michelena jaunak lekua libratu behar izatea arras ulertzen du, baina saltzaileak ez diren eta adibidez terrazen karrikan bizi direnekin arazo bat dagoela adierazten du. Ibilgailua urrun aparkatzera behartuak izan dira haiek eta horrek arazoak sortzen ditu, bereziki adineko jendeentzat. Ez ditu autoa laurogeita hamar minutu guziz mugitzen irudikatzen. Kasu hau aipatua izan ote da ?

Terrazen karrikan bizi diren herritarrak kanpoan lan egiten duten jendeak direla erantzuten dio Irastorza jaunak. Hala, arratsetan baizik hor ez direnez, eta 18:00etatik goiti eta 09:00ak arte karrika eremu urdinean izanen ez denez, arazorik ez dagoela erraten du.

Egun osoan hor den adineko jendearen arazoa azpimarratzen du Michelena jaunak.

Eredu urdinaren arazoetarik bat hori dela azaltzen du Irastorza jaunak.

Aparkatzearen arazo orokorra ere beste arazo bat dela zehazten du Jogleux andereak. Erdibideko soluzio bat atzeman behar da. Terrazen karrikan bizi den pertsonak eremu urdinetik kanpoko beste lekuak ere baditu. Karrikan bizi diren eta garajerik ez duten herritar guztiei aparkatzeko leku bat eman behar ote die Herriko Etxeak? Hiru edo lau auto dituzten familiak kontuan hartu gabe...

Iaz, ekonomia batzordean proiektu hau aipatua izan zela gehitzen du Dor jaunak. Aurten, saltzaileen batasunaren bulegoari proiektuaren zirriborro bat aurkeztu zaio eta bulegoko kideek biltzar orokorrean aurkeztu dute. Proiektua baikorki errezibitua izan da, ez da aurkako oihurik izan. Eremu urdinik ez egoteagatik kexatzen da jendea. Kanboko herriaren tamaina duten inguruko herrietan, eremu urdinak plantan ezarri dira. Oraingoan, hogeita hamar bat leku dituen lurpeko aparkalekua guti erabilia dela zehazten du. Hori ikusirik, lur azpiko aparkalekua Herriko Etxeko, mediatekako eta bestelako zerbitzuetan lan egiten duten pertsonentzat hurbileko aparkaleku bezala erabili nahi du Herriko Etxeak.

Jendeak lurpeko aparkalekua garaje bezala erabiltzen duela erraten du Jogleux andereak.

Aparkaleku horren heste automatikorako sistema behin baino gehiagotan hautsia izan dela azaltzen du Auzapez jaunak. Konponketa gastuak handiak dira. Baina aparkalekuan segurtasun neurriak indartzeko aukera litzateke. Herriko Etxean eta inguruan lan egiten dutenei aparkalekua erabiltzea proposatzeko aukera litzateke ere. Hala, gainerako lekuak libratuko lirateke. Ez pentsa ere Kanbon aparkakutzak ezartzerik. Aldiz, herriaren erdialdean usaiak pixka bat aldatu behar dira. Abiatzea da zailena, gero, jendea egokituko da.

Eremu urdinen abantaila argia dela gehitzen du Bacardatz jaunak. Baina, eremu urdinean izanen den Txikito karrikako saltzaileentzat, egun pilota plazako aparkalekua betea da. Non aparkatu behar duten nola esplikatu zaie? Herriko Etxeak aparkaleku honekin zer egiteko asmoa du?

Txikito karrikan lehen baino leku gutiago badela ihardesten dio Auzapez jaunak. Pilota plazako aparkalekua horretarako sortu eta hobetu zela erraten du. Txikito karrikan, oinezkoentzat, mugikortasun ahalmen urria dutenentzat edo haur karrosak dituzten burasoentzat karrika punta batetik bestera pasatzeko tartea, errepidea eta aparkalekuak jartzea zaila zen. Aparkatzearen arazoa ez da beraz Txikito karrikarena. Pilota plazako aparkalekuari dagokionez, bi gauza badira. Alde batetik, Herriko Etxearekin adosturik, obrak egiten diren artean, Toki Ederreko soldatadunek aparkalekua erabiltzen dute. Pilota plazako aparkalekua Toki Ederreko aparkalekuaren eranskin baten gisan ez erabiltzea errana izan zaio Toki Ederreko zuzendariari. Bestetik, Herriko Etxeak hortik hurbil den lursail bat erosteko asmoa du, lursailaren zati bat aparkaleku gisa erabiliz.

Duela hilabete bat, hiru asteren barne landarez hornitu lekuak prest izanen zirela errana izan zela seinalatzen du Lespade andereak. Hiru asteak iragan dira, eta, gaur egun ere, 10:00etan, aparkalekua beti arras betea da. Landarez hornitu leku horiek prest ote dira?

Leku horiek joan den astetik erabilgarri direla erantzuten dio Aizpuru andereak. Arras zehatza izateko, arratseko 22:00etatik goiti, Toki Ederreko enplegatuek lana bukatu duten tenorean, Herriko kontseiluko kideak pilota plazako aparkalekua ikustera joatera bultzatzen ditu. Orduan, gauean ere aparkalekua betea dela ohartuko dira.

Aparkalekua betea denez eta 18:00etan lanetik heldu direnek autoa urrunago aparkatu behar izan dutenez, hori normala dela zehazten du Lespade andereak. Horregatik, 22:00etan aparkalekua hutsik egoten da.



Kontrakoa erran duela ohartarazten dio Aizpuru andereak. Eraikina uzten duen bakoitzean auto kopurua zenbatzen du. Zerrenda ekartzen ahal duela erraten du, funtsik gabeko erranak ez direla erakutsiko du horrela. Asteburuetan, hala da bai, jende guti bada. Hala, Kanbon lan egiten duten eta Kanboko saltegietan direnek aparkalekua erabiltzen dutela uler daiteke. Eta horretarako egina izan zen. Toki Ederreko enpleguak inguru osoan aparkatzen dira, eta ez pilota plazako aparkalekuan bakarrik. Erietxearentzat egiazko arazoa da. Aterabideak bilatzen ari dira, baina, gaur arte, ez da soluziorik aurkitu.

Obrak egiten direlarik aparkalekuen arazoari pentsatu behar dela gehitzen du Lespade andereak. Funtsezkoa da. Pazienteak, bisitariak eta enpleguak biltzen dituen gunea baita. Gogoetatu beharreko gauzen artean lehena da aparkalekua.

Obra egitasmo bakoitzean Kanboko HTP zorrozki jarraitu izan dela ihardesten dio Aizpuru andereak. HTPk behartzen duena baino aparkatzeko leku gehiago sortu da gainera. Eta hori herriaren erdialdeko berdeguneetan egina izan da.

Alde batetik sortuko diren hamabi lekuekin eta bestetik Toki Eder erietxeak egingo dituen ahaleginekin, gisa horretako arazoak konponduko direla uste du Auzapez jaunak. Enpleguak lehentasunez Toki Ederrekoak diren lekuak erabil ditzaten, erietxeko zuzendariari zerbitzu agiri baten idaztea eta banatzea galdegin dio. Herriko Etxeak pilota plazako aparkalekua denendako erabilgarri izatea eta aparkaleku pribatua ez bilakatzea zainduko du, ostiraleko merkatu denboran bereziki. Merkatu hartara joaten direnek lekuak atzematea garrantzitsua da.

Eremu urdinaren 5. artikuluko 2. paragrafoari buruz galdezka ari da Bacardatz jauna. Ibilgailua beste leku batera mugitzearena arras subjektiboa dela uste du. Herriko enplegu batek nola erran dezake auto hau edo bestea 2 metroz mugitu dela ?

Deus ez egiteko edo aparkakutzak jartzeko iradokitzen dio Auzapez jaunak. Eremu urdina erdibideko formula bat da. Ez da perfektua, alde txarrak dauzka eta egia da legea saihestu nahiko duen pertsonak hala egiten ahalko duela.

Egunean anitz mugitzen den Kanboko jende gaztea eta ez hain gaztea badela zehazten du Bacardatz jaunak. Herriko enpleguak joan-jin horiek nola kontrolatzen ahalko ditu ? Kudea ezina da, ez ?

Udaltzainak proiektu horretan parte hartu duela seinalatzen du Dor jaunak. Menturazko kontrolak eginen ditu, autoak non aparkatuak diren oroitzeko matrikula plakak idatziz edo argazkitan hartuz. Kontrol jarraikiak egiteko ez da giza baliabide nahikorik. Aparkakutzak instalatzeko edo zaintza egiteko giza baliabide bitartekorik ez duten hiri ttipientzat, eremu urdinak baliosak dira. Udaltzainaren eginkizunetako bat eremu urdinaren errespetaraztea izanen da. Hastapenean pedagogia-lana egin beharko da. Gehiegikeriak gertatzen baldin badira, lege urratzaileek isuna jasoko dute.

Pertsona batek ibilgailua aparkalekutik kendu, herriaren itzulia egin eta leku berean jartzen baldin badu isunik jasoko ez duela zehazten du Bardin jaunak.

Sistema osoa uztailearen lean plantan ezartzea aurreikusia denez, diskoak manatuak izan ote diren galdetzen du Bacardatz jaunak.

Lehen diskoa eskainia izanen dela eta herritarrek ekaineko herriko aldikariarekin batera jasoko dutela oroitarazten dio Jogleux andereak.

Eremuaren hastapenean eta bukaeran, eremu urdina bide seinale batzuekin markatuko ote duten galdegiten du Bacardatz jaunak.

Baietz ihardesten dio Juggleux andereak. Eremuaren erdian eta herriaren erdialdeko sarbide bakoitzean ere oroitarazte bide seinaleak jarriko dituzte.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

## **16– Auzapezaren erabakien berri.**

Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera eta 2014ko apirilaren 7ko Herriko kontseiluaren erabakiaren arabera, honakoaren berri emana da :

- 2016ko martxoaren 12tik apirilaren 15era, Hirian erosteko lehentasunari lotutako ezezko erabakiak :
  - Lursaila : 0
  - Etxea : 6
  - Apartamentu : 1
  - Sotoa : 1
  
- 2016ko martxoaren 12tik apirilaren 15era, hilerriari eman eta berriz hartu kontzesioak :
  - 15 urteko kontzesioen erostea : 0
  - 30 urteko kontzesioen erostea (+ hilobiak) : 0
  - 30 urteko kontzesioen erostea (+ kolunbarioak) : 0
  - 15 urteko kontzesioen berritzea : 1
  - 30 urteko kontzesioen berritzea (hilobiak) : 0
  - Lursailen berriz hartzea, urririk : 0

## **17 – Bestelako aipagaiak.**

- Parachou familiaren partetik, Herriko kontseiluko kide guzietan esker onak jaso dituztela seinalatzen du Auzapez jaunak. Arnaud Parachou jauna eskulangile estimatua eta ezaguna, suhiltzailea, herriko sokorri zentroko burua eta axuanta izana da. Guzti horregatik, Herriko Etxeak familiari lore sorta bat eskaini dio. Dolumin adierazpen eta adiskidetasun keinu horregatik familia Herriko kontseilua eskertzen du.
  
- Herriko Etxeak Henri Janot jauna eta andereak eman bi besaulki onartu dituela jakinarazten du Auzapez jaunak. Orain, bi besaulki horiek Arnagan dira. Emaidza hori kontuan hartzen du eta emaileak Herriko kontseiluaren izenean azkarki eskertzea proposatzen du.
  
- Kanboko herriak errefuxiatu politikoa den familia bat hartzeko duen borondatea oroitarazte dio Auzapez jaunak Herriko kontseiluari. Herriko Etxeari Siria hegoaldetik datorren Alhatem familia bat proposatua izan zaio. Senar-emazteez eta 8 eta 12 urteko bi haurrez osatua da familia. Lehen urratsean, Biarritzeko apartamendu batean ostatu emana izan zaie. Ostatu eman nahi izan dien pertsona batekin batera bizi izan dira. Heldu den astean, Turismo Bulegoaren bigarren estaiako apartamendura jinen da familia hau. Horretarako, behin familia instalatu eta gero, Herriko Etxean, harrera ekitaldi bat antolatuko da. Haurrak

Kanbon eskolatuak izanen dira. Pertsona horiek OFPRA erakundearengandik errefuxiatu politiko estatusa erdietsi berri dute. RSA eta bestelako laguntza sozialak eskuratzen ahalko dituzte, hala nola Kontseilu Orokorrek adingabeentzat eta haurrentzat ematen duen laguntza. Egonaldi baimena badute eta lan egiten ahalko dute. Hastapen batean bizitegia, elektrizitatea eta ura urrik eskaintzea eta gero irabazien arabera alokairua ordaintzea da tratua. Duintasun kontua da haienentzat. Auzapez jaunak Kanboko indar eragile guztiak bildu nahi ditu. Hala frantsesa irakasteko, desmarta administratiboetan laguntzeko, jantziak eta altzariak emateko prest diren pertsona guztiak bildu nahi ditu. Herrian ditugun elkarteek gogotik errezibituko dute familia.

Gaur egun haurrak eskolatuak ote diren galdetzen du Hiriart-Urruty andereak.

Baietz ihardesten dio Auzapez jaunak, urtarriletik Biarritzen eskolatuak direla.

Maiatzean eta ekainean haurrak Kanbon eskolatuak izanen ote diren galdetzen du Hiriart-Urruty andereak.

Hori burasoek deliberatu behar dutela erantzuten dio Auzapez jaunak.

- 2016ko maiatzaren 13tik 21era, Errobiko mediateketan « ELEPIKA » festibala iraganen dela seinalatzen die Lespade andereak Herriko kontseiluko kideei. Kanboko, Itsasuko eta Uztaritzeko mediatekek bat eginik, aktibitate ezberdinak proposatuko dituzte.
- 2016ko apirilaren 7ko eskolen kuxaren batzordearen bilkuran, Kanbo Behereko eskolako zuzendariak kanpoko garaian saskibaloia saskia hautsi eta lurrera erori egin dela seinalatu duela dio Michelena jaunak. Itxura guzti arabera, saskia gaizki finkatua zen. Herrian gisa horretako beste muntadurak badira. Eskoletan, kirol eremu eta zelaietan, haurrendako jostalekuetan, zolan edo paretan finkatuak diren ekipamenduen segurtasun neurriak aztertzeko erregulari zein kontrol mota egiten ote da?

Legeak behartzen duen bezala, onetsi erakunde batek jostalekuak erregulari kontrolatzen dituela ihardesten dio Auzapez jaunak. Bestelako ekipamenduetan ere kontrolak badira, herriko zerbitzuek kirol muntadurak erregulari ikuskatzen dituzte. Kanbo Beherean gertatutakoa ikusi behar da. Istripu horren gertatzeko baldintza zehatzak zein izan diren jakiteko, zerbitzuei gertatutakoaren berri jasoko duen txosten bat egitea galdegin behar zaie.

Kontrolak eta ikuskatzeak behar direla eta edozein arazoren aitzinean aurkeztu daitezkeen erregistroak ere bete behar direla erraten duen 1996 urteko dekretu bat aurkitu duela zehazten du Michelena jaunak. Irakasleek lehen mailako saskibaloia saskiaren taularen arazoa seinalatu zutela oroitzen da. Herriko Etxeko nehorik ez zuen kontrolatu. Maila horretan, bete beharreko legeria dago.

Zerbitzuen zuzendari orokorrak jostalekuetan, kirol muntaduretan eta eskoletako ekipamendu orotan ere ikuskatzeak egiten direla baieztatzen du. Kanbo Behereko eskolaren kasuan, eginbidea ez da bete. Erregistroak badira, bai. Kontrolak badirelarik, erregistroan jasotzen baitira. Hautatutako ikuskatze bulegoarekin dugun partaidetza atxikitzen ote dugun erabakitzea galdegin zaio zerbitzu teknikoetako zuzendariordeari. Bestenaz, prezioaz gainerako beste irizpide batzuen arabera konkurrentzian jar daitezke ikuskatze bulegoak. Erabateko fidagarritasuna beharrezkoa da. Izan ere, istripu horrek ondorio larriagoak izan zitezkeen.

Galdera arras egokia dela gehitzen du Auzapez jaunak. Herriko Etxeak galde honi erantzun beharko dio.

- 2016ko apirilaren 20an, Carsat-ek Kanboko erietxeetako eta inguruko klinika eta ospitaleetako zerbitzu sozial ezberdinei mezu elektronikoa bat igorri diela seinalatzen du Aïçaguerre andereak : « Arrazoi administratiboengatik, jakinarazten dizuet, eskaera berrien aitzinean, Kanboko HJLZ ez dela esku hartzeak egiteko gai. Zerbitzu honek jadanik hasitako eta bere ardura diren esku hartzeekin segituko du, eta Harrera Proiektu Indibidualizatuak berritzen jarraituko du. Alabaina, Harrera Proiektu Indibidualizatu lehen eskaera eta Ospitaleratze Ondoko Etxera Itzultzeko Laguntza eskaera oro ukatuko du. Egoera aldatzen ez deino, ez ezazue otoi zerbitzu hori zuen laguntza planetan gomendatu. » Mezu elektronikoa horren zergatia jakin nahi du, eta administrazio-arrazoiak zein diren bereziki.

Mezu elektronikoa HJLZko zuzendariak igorri duela erantzuten dio Saint-Jean jaunak. Astelehen goizean, erietxe batetik ateratzen zen pertsona bat errezibitu du. Berehala pertsona horren ardura hartu behar izan du. Baina momentu hartan ez zen halakorik egiteko aukerarik. Etxeko artak eskaintzen dituen beste zerbitzura bideratu du, orduan. Han, pertsona horren ardura hartu dute. Berehalako ardura hartze mota horiei erantzuteko zer egin dezakeen ikertzen ari da HJLZ.

« Eskaera berri oro » aipatzen denez, orokorrean ahal dela uste du Aïçaguerre andereak.

Ezetz ihardesten dio Saint-Jean jaunak, eskaera berri batzuk bere gain hartu dituela ondotik ere.

Erietxeetako zerbitzu sozialei, berehala ardura hartzeko txostenak salbu, txostenak berriz igortzen has daitezkeela zehazten duen mezu elektronikoa bat igorri behar zaiela uste du Aïçaguerre andereak.

Hala dela ihardesten dio Saint-Jean jaunak.

Aïçaguerre ez da ados. Ostiralean aipatu izanagatik, beti erantzun berdina zen. Zerbitzu horiei informazioa igorri behar zaie.

Bihar goizean berean zuzendariari aipatuko dio Saint-Jean jaunak.

Galdera HJLZri egitea proposatzen du Auzapez jaunak, erantzukizuna hari leporatzen baitzaio. Egoera argitu behar da. Lege orokorra baldin bada, hura horren aurka baita.

- Apirilaren 4ko aurreikusiak ziren Zesarren Zelaiko bideko obren bururapeneko bilkura iragan ez dela seinalatzen du Bacardatz jaunak. Apirilean errepidean egin beharreko obrak egin ez direla seinalatzen du. Obren bururapeneko datarik ezagutzen ote da ?

Devèze jaunak datarik ez diezaioke eman. Ez du bururapeneko datarik ezagutzen. Bilkurari eta bururatzeari buruz, gibelapen bat egon da. Oraingo ustez, elkarrekin adosturik, tokiko bizitzaileek zituzten arazo teknikoak aterabidea atzeman zaie. Diru arazoari dagokionez, hau ere konpondua izan da eta bakoitzak bere ekarpena eskuratzeko epea 2016ko irailaren 30era gibelatua izan da.

Maldari lotu arazo tekniko bat egon dela eta hori konpondua izan dela erantzuten dio Bacardatz jaunak. Trabagarri dena zera da : tokiko bizitzaileek beren obrekin hasi nahiko

dute baina ez dakite noiz has daitezkeen. Azaroan egin ordeztu, udan, euririk ez delarik egitea hobe izan daiteke.

Magis jaunak galderari ihardespen bat ematen dio. Sarean ura sartzen zela ohartu direnez, obrak gibelatu egin dira. Irazgaiztasun probak egiteko kanpaina osagarri bat egitea galdetu dute. Laster egingen da. Probak baikorrek izanen direnean berriz abiatuko dira obrak.

Gai zerrenda bukatua denez, 23:00etan, Auzapez jaunak Herriko kontseiluaren bilkurari bururapena ematea erabakitzen du eta ekainean Herriko kontseiluaren beste bilkura bat izanen dela zehazten du.